

ERAKUNDEA

Bai uraren hornidura- eta saneamendu-zerbitzua, bai hondakinen kudeaketa-zerbitzua kudeatzeko modu bezala, Mankomunitateak hartu zuen legez merkataritza-sozietate baten bidez kudeatze zuzen gisa definitutakoa. Merkataritza-sozietate horrek “Iruñerriko Zerbitzuak Sozietate Anonimoa” izena du (IZSA), eta horren kapitala osorik dagokio Mankomunitateari. Sozietate horren beraren bidez, Iruñerriko Ibai Parkea ere kudeatzen du.

Hiri-garraio kolektiboaren kudeaketa zeharka egiten da, kontzesio bidez; taxi-zerbitzua, berriz, Iruñerriko Mankomunitateak emandako baimena, beharrezkoa dena, duten titular pribatuek ematen dute.

Horrenbestez, legez desberdinak diren bi erakunde dira. Mankomunitatearen funtzionamenduaren arau-oinarriak (Iruñerriko Mankomunitatea) eta horren sozietatearenak (Iruñerriko Zerbitzuak SA) dagozkien estatutuetan bilduta daude, eta bien arteko harremanak Iruñerriko Mankomunitatea eta Iruñerriko Zerbitzuak SA erakundeen arteko harremanen araudiak arautzen ditu.